



Erleak erasotzen dituen liztorra hurbildu da herrira

Erlezainak kezkatzen hasi dira Gipuzkoara Vespa Velutina izeneko Asiako liztor handiak heldu direlako. Azken hilabeteotan 14 kabi aurkitu dituzte inguruan, azkena Lasarte-Orian bertan arbola batetik zintzilik. Antonio Eleizegi Saltzate baserriko erlezainak, hala ere, sagarrondoiei botatzen zaien intsektizidak kalte handiagoa egiten diela adierazi digu. /4-5 ORRIALDEAK

Kopla kantu ugari

Lasarte-Oriako hainbat taldek ostiralean Santa Agedaren ohorezko eskea egin zuten

A bestiak dioen bezala, ohitura zaharrrak aurten ere berritu ziren gure herrian. Santa Ageda bezpera egunean, ostiralean, herriko talde batzuk kopla kantuan aritu ziren. Era honetara, Lasarte-Oriako kaleetan, zein inguruko baserrietan herritarren ezarri sanoek Agedaren omenez oles egin zuten. /8 ORRIALDEA

Bakarrizketez gozatzen

Aste honetako Gazte emanaldietan, Oscar Terolek zuzendutako "Informaticidio" antzezlanaren iragarria bazegoen ere, azken orduko arazoek Nasdrovia antzerki taldeari lana eskaintzea galarazi zion. Ondorioz, bakarrizketak entzun ziren Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian. Egunerokotasuneko gaiak edo esperientzia bereziei buruz mintzo ziren Nasdrovia antzerki taldeko kideak, beti ere, tonu umoretsua erabiliz eta hainbat barre eta alarga sortu zituzten. •



Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegiko ikusleek Nasdrovia antzerki taldeko kideen bakarrizketak entzun zituzten.

KIROLA/2

David Martinek Idiazabalgo Herri krosean garaipena lortu zuen

GIZARTEA/3

Janari banaketa puntua irekiko da gaur herrian

POLITIKA/6

PSE-EEK bat egin du N1a estaltzeko ezker abertzalearen eskaerarekin



- 10 ordu: astelehenetik ostegunera
- Txandaka ibiltzeko aukera (maila guztietan goiz zein arratsalde)

Matrikulaldia: otsailaren 28a arte
Bulego orduak: 08:30 - 19:15

- Hasierako mailan ez dago apuntatzerik (irailean baino ez dugu onartzen)
- Autoikaskuntzan plaza guztiak beteta.

Kiroldegiaren ondoan !



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Tel.: 943 36 16 21

www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml

David Martin garaile izan zen Idiazabalen

Herriko hainbat korrikalari hurbildu ziren Idiazabaleko XXXI. Herri Krosean parte hartzera

Kirol probak ekimenko II. txapelketari urtarrilean eman zitzaion hasiera. Hiru proba egin dira dagoeneko, Erregeetako krosa, VI. Araitz-Beteluko krosa eta Idiazabalgo XXXI. Herri Krosa.

Azken proba honetara, Lasarte-Oriako herritar talde ugari bat hurbildu zen, urtarriaren 30ean, eta gainera, horietako batek, David Martinek garaipena eskuratu zuen.

Lehia handia

Lasarteoriatar taldeak 576 lagunerekin artean egin zuen lasterketa Idiazabalgo XXXI. Herri Krosean.

Hala eta guztiz ere, lasterketako lehenengo metroetatik David Martin herritarra eta Joanjo Igartzabal zumarragarrak izan ziren lasterketa buru.

Igartzabalek badaki zeren Idiazabalen irabaztea, eta aurten ere aurreneko postuaren bila atera zen.

Lehia estua izan zen bi korrikalarien artean, baina Martinek lasterketa bikaina egin eta azkeneko zatian aurre hartu zion Igartzabali. Helmugan, Davidek 21 segundoko errenta atera zizkion zumarragarrari, 32:17ko denbora egin zuen.

Herritarrak

Baina, arestian aipatu bezala, Ostadarreko atletismo taldeko hainbat kide eta herritar batzuk ere parte hartu zuten proban honetan.

Hauek dira haien denborak: Endika Gartzia, 0:37:07; Toño Perez, 0:39:07; Luis Enrique Gallego, 0:39:56; Juan Mari Marcos, 0:40:15; Julen Ollokegi, 0:40:18; Iurgi Auzmendi, 0:40:54; Javier Olazagoitia, 0:42:09; Juan Jose Lopez, 0:42:55; Eduardo Ormazabal, 0:44:32; Mikel Izagirre, 0:44:49; Jose Ignacio Elvira, 0:45:33; David Sanz,



Josnjo Igartzabal, lehenengo planoan, eta David Martin, atzean, Idiazabalgo XXXI. Herri krosekoko buru egon ziren.

0:46:11; Miel Ormazabal, 0:46:31; Joseba Iparragirre, 0:46:42; Francisco Javier Perez, 0:47:00; Altor Sorozabal, 0:48:55; Xabier Prada,

0:49:13; Manolo Lopez, 0:49:24; Jose Ignacio Mendiluce, 0:50:07; Peio Fadrique, 0:50:07 eta Eñaut Fernandez de Lezea, 0:53:14.

Kirol probak txapelketako hurrengo lasterketak otsailaren 26 eta 27an dira, ea gure herriko korrikalariak garaupenak eskuratu duten. •

Gimnastikako neskak hasi dute txapelketen denboraldia

Entrenamenduak urrian hasi eta lan asko egin ondoren, LOKEko gimnastek larunbata honetan, otsailaren 5an hasiera eman diote txapelketen denboraldiari.

Jubenil eta kadete mailako neska gazteek Arrasaten eskolarteko txapelketako lehenengo fasea izan zuten.

Bertan jubenil eta kadete mailan banaka edo kadete mailan taldean aurkeztu zire.

Honela, Garazi Gomezek eta Miren Aizpirik uztailean egin zuten eta Aizpea Arroyok, aldez, sokarekin lan egin zuten bere ariketan.

Maria Millan, Ane Loiarate, Ane Ayestaran, Ainar Apez-



Aizpea Arroyo iazko denboraldian borrekin egiten zuen ariketa gauzatzen.

teguia eta Ariadne Aguadok osatutako kadete taldeak trenarrik zailenarekin lan egin behar izan zuten, borrak.

Aldizkari honetako edizio itxi baino lehen, ezin izan dugu txapelketako emaitzarik eskuratu. •

J. Olmos eta K. Tobajas Gipuzkoako txapelkun

LOKE taldeko judoek ez dute atsedenik hartzen. Lehengo igandean, urtarriaren 30ean, junior mailako Gipuzkoako txapelketan egon ziren Gorka Aristegiren mutil eta neska eta emaitza onak lortu zituzten, bi urrezko domina, hiru zilarrezkoak eta brontzezko postu bat.

Txapelkun berriak

LOKE taldeak Gipuzkoako bi txapelkun berri ditu maila honetan, hauek Kiara Tobajas eta Josu Olmos dira.

Kiara Tobajas 45 kilo azpikoetan garaile izan zen eta Josu Olmos, berriz, 55 kilo azpiko mailan.

Bestalde, iaz txapelkun izandako Leire Zubizarretak bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen bere mailan. Mutiletan, aldez, Esteban Martinez 60 kilo azpiko mailan eta Asier Sagasti 81 kilo azpiko mailan izan ziren ere bigarren postua eskuratu zuten beste bi judokak.

Hauetaz gain, Mario Garridok ere bere harrizkoa jarri zuen bere mailan hirugarren postua lortuz.

Kadete kopa

Gauzak honela, Josu Olmosek asteburua Madrilen igaratu, bertan Kadete kopako jardunaldian lehiatzen. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Janari banaketa puntua irekiko da gaur

Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Berpiztu elkarteak elkarlanean kudeatuko dute elikagai banaketa

Egoera txarra bizi duten herritarrek badute beste euskarri bat egoera xamurto eta etxera janaria emateko.

Lasarte-Oriako Udalak eta Berpiztu elkarteak egindako hitzarmenaren ondorioz, gaur elikagai banaketa puntu bat irekiko da gure herrian.

Datuak eta krisia

Gizarte Zerbitzuetako datuen arabera, egun 200 bat familia daude Udalak Gurutze Gorriarekin batera egiten duen elikagai banaketaren onuradun direnak.

Baina Lourdez Acevedok saileko lehendakariak azpimarratzen duen bezala, "egungo krisi egoeran, herritar gehiago izan daiteke etxera janariak eraman ezin duena."

Gizarte Zerbitzuetara jo

Horregatik, egoera horretan dauden herritarrei Gizarte Zerbitzuetara, Villa Mirentxura herbiltzeko gomendioa egiten die.

Gizarte Zerbitzuek familia egoeraren azterketa egin eta horren arabera laguntzaren onuradun izan daitezkeen erabakiko dute.

Horrela bada, familiaren beharren arabera txartel bat emango zaiei eta herriko elikagai banaketa puntura bidertariko dituzte.



Berpiztu elkarteko kideek eta Udaleko ordezkariak janari banaketa puntua bisitatu zuten.

Banaketa puntua

Berpiztu elkarteko arduradunek azaldu digutenez, banaketa puntua astelehenero egongo da irekia 16:30etatik 18:30etara.

Bertan, herriko 8 pertsona egongo dira boluntario moduan lanean.

Elikagai puntuan banatuko diren janariak "freskoak eta iraunkorrak izango dira, beraz denetarik egongo da, baina gure hornitzaileek bidaltzen digutenaren arabera izango da hori".

Horregatik, janari bankuak edo enpresekin hitzartuak dituzten janariak egongo direla azaltzen digute eta "merkatagune eta baseritarrekin

harremanetan jarriko gara ere haien ekoizpenaren soberakinak puntu honetan banatu ahal izateko".

Honetaz gain, gauza bat garbi utzi nahi izan dute, "kudeaketa garbia izan dadin, Gizarte Zerbitzuetako txartelarekin datozenei bakarrik banatuko zaie janaria."

Beste elikagai banaketak

Era berean, Gizarte Zerbitzuetako lehendakariak Lourdes Acevedok jakin arazi duenez, Udalak eta Gurutze Gorriak urtean bitan egiten duten banaketa mantenduko da eta honetaz gain, Caritasek arlo honetan ere egiten duen lana gogoratu du. •

GAZTE KLUBA

Txuri-Urdinera irteera

GAZTE KLUBA Gazte Klubeko kideek Gazteburu bereziaz gozatzeko aukera izango dute otsailaren 12an.

Herriko gazteak arratsalde pasa joango dira, Txuri-Urdin Izotz Jauregira. Hitzordua arratsaldeko 16:00etatik dute Ludotekan.

Ekintza honetan parte hartzeko, gaztetxoek merienda, galzerdi potoloak eta eskularruak eraman beharko dituzte.

Izena ematea Ttakuneko bulegoan edo telefonoz, 943 371 448 egin dezakete interesatuek, baita aisia@ttakun.com helbide elektronikora mezu bat bidaliz ere. Txangoaren prezioa 10 eurotako da Ttakuneko bazkide ez direnentzat; bazkideek, ordea, 8 euro ordainduko dute. Epea otsailaren 10ean, ostegunean, itxiko da. •

INAUTERIAK

Karroza eta konpartsentzako diru laguntzak

Hilabete geratzen da etxeko trapu zaharrak hartu eta mozorro bat egiteko. Martxoaren 3tik 8ra Inauteriak ospatuko dira eta gure kaleak jai giroaz beteko dira desfile eta konpartsa desberdinekin.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak 2011. urteko inauterietan parte hartu nahi duten elkarte, talde eta konpartsei jakinarazten zaie Inauterietako "Karroza eta Konpartsentzako" diru laguntzak eskatzeko epea bihar zabalduko dela.

Eskaera horretarako prestatu diren inprimakiaren bidez egin beharko da. Horiek beteak otsailaren 16ra bitarte, Udaletxeko Erregistro Orokorrera eraman behar dira.

Edozein zalantza argitzeko, 943 376 181 telefonora dei dezakezue edo Manuel Lekuona Kultur Etxera hurbildu. •



Inauterietan atera nahi duten konpartsa eta taldeek laguntza eskatzeko aukera dute.

HEZKUNTZA

Aurrematrikula egiteko azken astea

Lasarte-Oriako ikastetxeetan aurre-matrikulatzeko epea amaitzeko egun gutxi falra dira. •

Hori dela eta, Landaberri ikastolak eta Zumaburu-Sasoeta ikastetxeak 11-12 ikasturterako haurra matrikulatu nahi duten gurasoei gogorarazten die otsailaren 11a arte izango dutela matrikula egiteko aukera. •

KIROLA

Padel saioen eskaintza Kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirolen Udal zerbitzuak kirol instalazioetako bazkideentzat padel jarduerako saioak eskainiko ditu Udal kiroldegiko padel kanta berrian.

Saioak otsailaren 12, 20, 26 eta martxoaren 12an egingo dira. Hauetan bi txanda egongo dira, bata 10:00etatik 11:00etara eta bestea 11:00etatik 12:00etara.

Kirol instalazioetako bazkidea izanik saio hauetan parte hartzeko interesa dutenek, aldeztu aurretik, izena eman beharko dute Kiroldegian. Saioak doan izango dira. •

Mendiko federatu txartela

Ostadar Kirol Fundazioko mendiko sailak gogoratzen du mendiko kirolak, hau da, eskia, mendiko txirrinda, ibilaldiak edo eskalada maiz egiten duten herritarrek federatuak egotea komeni dela.

Mendiko federatu txartela izateko intresa dutenek Ostadarreko bulegora hurbildu, Geltoki kalea 25 z.b., 18:30etatik 20:00etara, eta informazioa eskatu dezatela. •

Sorgin Dantzak kaleak alaituko ditu otsailaren 20ean

Lasarte-Oria udal herria sortu zenaren 25. urteurrena ospatuko da hila-ren 14tik 20ra.

Eta antzinako ohitura jarraituz, ospakizun hauen barruan Sorgin Dantza egongo da.

Otsailaren 20an, igandean izango da hori eta herriko kaleak doinu eta dantzaz betetzeko, Ttakun Elkartetik herritarrak parte hartzea animatu nahi ditu.

Ez da entsegurik egingo, garrantzitsuena blusa jantzi eta haur eta helduen zortzikotearen atzean dantzatzea izango da.

Aldaketa nagusia, hasiera



Sorgin Dantza Lasarte-Oria sortu zeneko 25. urteurreneko ospakizunetan presente.

eta amaiera izango dira. Zumaburuko eliza ondotik, arratsaldeko 16:00etan atera eta Loidi Barreneko frontoian

amaituko baita Sorgin dantza. Ordu edo leku aldaketarik balego antolatzaileek jakitera emango dute. •

Erleak jaten dituzten liztor erraldoiak hurbildu dira

■ *Vespa Velutina* Asiako liztor erraldoien kabi bat aurkitu dute Lasarte-Orian ■ Gutxienez herriko beste bi erlezainek utzi egin dute lana azken urteotan intsektizidak kalte handiago eragiten dute ■

Erlezainak kezkatzen hasi dira Gipuzkoara Vespa Velutina izeneko Asiako liztor handiak heldu direlako. Liztor hauek erleak baino hiru aldiz handiagoak dira eta jan egiten dituzte. Aktiantia eta Ipar Euskal Herrira 2005ean itsasontzi batetik sartu zirela uste da. Handik zabandu eta azken hilabeteetan 14 kabi aurkitu dituzte Oarso aldean eta Donostia inguruan, azkena Lasarte-Orian N-1 errepidearen gainean arbola batetik zintzilik. Antonio Eleizegi Salizate baserriko erlezainak lazko udaran ikusi zituen liztor hauek bere erlauntzen inguruan, baina, dena den, sagarrondoet botatzen zaien intsektizidak kalte handiagoa eragiten die la adierazten du.

Jon AULTUNA

Lasarte-Oriako erlezalek erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

Nazioarteko mailako lexa

Antonio Eleizegi Salizate erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

Julian Uzkolai liztor hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.



Julian Uzkolai liztor hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

Kabia Lasarte-Orian

Julian Uzkolai berak eman digu Asiako liztorren berri. Berak jai-liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

Uzkolaiak jakinarazi digu liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

Lambidea utzi dutenak

Herriko erlezalek batzuek utzi dituzte liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

Antonio Olaskoaga 55 urte eman zituen erlezain dula hurbildu arte. Erleak erlanegoko dibalitzako kabi liztorrak hurbildu dituzte.

ANAIAK
J A N T Z I - D E N D A
40 URTE ZUEKIN !!
Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

ADURIZ DE LASARTE S.A
Solomoa baratxuritan
Odolkia- Solomo onizutua
Tripalkiak-Saltxitak
Txisiorra
BEJAKO FABRIKAZIOA
Lodi Barren kalda 3 • Tel.: 943 361276 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

ERREKATIXO JATEETXEA
KARTA erlanegoko MENUA
WIFI GINEA
Gosariak Hamalakekoak Plater konbinatuak Ogitatekoak Urtebetetzeak
MAGUI BERTAK Oritegi berria giro berria
Oria Etorbidea Ibatondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

egiten dute, eta inguru horretan dibalitzako erleak hurbildu zuten baldin badituzte, egun batean aldi berean mila erle edo gehiago hiltzen ditu. Hurrengo egunetan jada ez dira erleak hiltzen, eguneko bertan bai.

Erlezainek Elkarrean jakinarazi gaituzte. Gai honetaz komeni da hiru egiteko, konponbideren bat bilatzeko, beste elkarrekin elkarrekin elkarrekin hitzegin behar da, esaterako sagardoglietekin.

Galera handia bi mila erle egun batean ezta?
Bai galera handia da. Tralaz-mendu hori ekaina aldera egiten dute sagarrondoetan, jaxtu, erleak lanean topera aritzen diren garaian, ezta egiteko momenturik onenean, maitatza eta ekaina dira hemen onak, orduan izaten da erle kopuru gehiena 40.000-60.000 inguru hontik aurrera lorerik ez da izaten eta erle kopurua ere jaldi egiten da, galhon ingurutan izaten diren 10.000 erleora arte)

Beste gaitzik izaten al dute erleak?
Gehiena kezkatzen gaituzten barroa da. Azken urteetan tralaz-mendu gutxiago.

Parasito bat da. Xomorro biki horrek, erlekuek jaiotzen aritzen diren habitatan sartzen dira, bertan ugaltzen dira eta hanka eta hegalkak jan egiten dituzte. Bere garaiko tratamenduak egiten ez badira egurren ematen diu erleak.

Asiak haur ere...
Ute asko dira azaldu zela, orduan alarma handia sortu zen; horiek ere, erle gaitzik iritsi zitokela eta abar. Liztorrek ere antzeko zerbait buru zuten eta bada liztor hori baino antzekuagoa dela. Kalte handiagoa egin dezake. Liztor horien egin dezakeena ikusteko dugu. *



Egun 60 erlauntz inguru ditu Antonio Eleizegi Salizate baserrian. Duela 28 uree hasi zen erlauntzan.

Antonio Eleizegi Erlezaina

‘Intsektizidak arriskutsuagoak dira’

Urdan konturatu zen Antonio Eleizegi Salizate baserriko erlezainak liztor arnari baxuk zehabitu bere erlanegoko udaran ikusi zuen herriko nekari hori; oraindik ez ditzake neukan hori buruz; bat edo bi ikusi nituen, egun debederetan, ez ziren asko ibiltzen baina ari esan nuen, baina ez ditzake hamaika beroko liztorra bada hemen, baina beste modu batean hegan egiten du, diferentzia zen eta atentzioa delitu zidan. Geroago ETBko albisteetan erakutsi zuten liztor bat... eta andreaki esan zuten hori alegatu da gure esera. Berak ez zela posible esaten zuten eta nik baietz. Geroztik zabaldu dira hemengo kontuak.”

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Zerbat ere danamazu erleekin?
28 bat ure.

Sagarrari harriz ez sortzeko erabiltzen dituzten intsektizidak erle kasatuan triskantzak eragiten dituzte.

PSEk bat egin du N1a estaltzeko ezker abertzalearen aspaldiko eskaerarekin

■ 2003an, oinarrizko arauen eztabaidan, eskatu zuten jada N1a Lasarte-Orian lur azpira pasatzea aztertzeko ■ Ezker abertzaleak jakinarazi du euren eskaera eta argudio berdinak erabili dituztela

Ezker abertzaleak oso ondo ikusi du Jesus Maria Zaballos alkateak N1 errepidea Lasarte-Orian lur-azpian sartzeko egin duen proposamena, hain juxtu, aspalditik behin eta berriro Udalean eskatu duena baita, baina Zaballos alkatearen jokabidea kritikatu du, batetik horren berri prentsa bidez jakin dutelako, Udal batzordeetan gaiaz hitz egin edota eztabaidatu gabe, eta bestalde, Zaballosek eskaera egiteko hitzez hitz ezker abertzalearen argudio eta arrazoi berberak erabiltzen dituzten arren ez duelako hauen aipamenik egin.

JON ALTUNA

Lasarte-Oriako ezker abertzaleko ordezkariak euren sorpresa adierazi dute Donostiako PTP lurralde planari PSEk egin dizkion alegazioetako batean euren argumentu berberak erabili dituelako, ezer jakinarazi gabe gainera. Emendakin edo zuzenketa horretan, N1 lur-azpian sartzeko eskaera egin du PSEk eta aipatutako arrazoiak, herria bitan zatitzen duela eta sortzen dituen zarata arazoak edota herriari ekarriko dizkion onurak, gune berde gehiago eta herria berrantolatzeko aukera, hain juxtu azken urteotan ezker abertzaleak behin eta berri ere egindako berberak dira.

Joxe Goikoetxea eta Txanpi Baztarrikak hori kritikatu dute, oraindik hirigintza batzordean aipatu ere egin gabe bota duela Zaballosek eskaera eta euren bano lehen prentsari jakinarazi diola: "Eta ez da kasu bakarra, beste egitasmo batzuekin ere

berdina gertatzen ari da, lentsuak ondo prestatuta daudenean ekartzen dituzte jateko, jan edo utzi, baina ez dago prestatetan parte hartzeko inolako aukerarik. Prentsa bidez jakiten ditugu gainera, batzordetik pasa aurretik. Ez dugu gaizki ikusten PTParen zuzenketa eskatzea, baina prentsari jakinarazi baino lehenago batzordean aipatzea bota dugu faltan. Batzordean eztabaidatu eta hortik aurrera egin dezala nahi duena".

2003tik eskatzen

2002-2003ko arau subsidiarioen eztabaidan egin zuen jada proposamen hau ezker abertzaleak, 2008ko udal aurrekontuen eztabaidan ere bai eta duela oso gutxi 2010eko irailean, zarataren aurkako panelen gaia jorratu zen udal batzar batean berriro planteatu zuten. Dena den, orain arte, PSOEko ordezkariak ezeko borobila eman diote proposamenari.

2008ko udal aurrekontuaren zuzenketa eskaera batean,



EAEko ordezkariak aspaldi eskatu zuten N-1 errepidea lurazpitik bideratzeko.

berriro proposatu zuen ezker abertzaleak, N1 errepidea lurperatzeko aukerak ikusteko azterketa tekniko sakon bat egiteko beste administrazioekin batera, Diputazio, Eusko Jaurlaritza eta Administrazio zentralarekin. "Lortutako lurak gune berde eta aparkalekuak sortzeko erabiltzeko aukera ere aztertu behar litzateke" zioten orduan, Lasarte-Oriako bizi kalitatea asko hobetuko zela eta hainbat arazo, zaratarena, esaterako, konponduko liratekeela aipatuz. Gauza bera proposatzen zen trenbidearekin, lur-azpian sartzeko helburu berberak lortzeko. Soilik ezker abertzaleko hiru ordezkariak eman zuten proposamenaren aldeko botua eta PSE-PSOE, EB

eta PPko ordezkariak aurkakoak.

Ezker abertzaleko ordezkariak 2008ko aurrekontuak eztabaidatu ziren batzarreko aktan jasotakoak, orduan Joxe Goikoetxeak adierazi zuena eta Ana Urchueguiak erantzun ziona, gogoratu dute.

Joxe Goikoetxeak arazoi heldu behar zaiola, premiazko gaia dela eta irtenbide bat bilatzeko beste erakundeekin hitz egin behar dela adierazi zuen. Ana Urchueguiari, aldiz, "obra faraonikoa" iruditu zitzaion, ikerketa egitea Foru Aldundiari dagokiola eta ez dagoela egitasmo hori gauzatzeko aukerarik.

2010eko irailean berriro atera zuten gaia mahai gainera, zaratari aurre egiteko panelen

gaia jorratzen ari zirela. Txanpi Baztarrikak proposatu zuen berriro N1a lur-azpian sartzeko aukera, Irunen trenbidea estaltzeko ekarri dituen onurengatik bertako alkate Santano oso pozik dagoela aipatuz.

Hainbat gauza planteatu zituen, besteak beste, errepideak lasarteoriatarrei eragiten dizkien arazoak, aldaketak ekarriko litzuzkeen abantailak eta gaur egungo teknologiari esker era honetako hainbat egitasmo martxan direla. Baztarrikak adierazi zuen, zailtasunak zailtasun aukera ona zela.

Argudio berberak

Orain ezker abertzaleko ordezkariak harriduraz ikusi dute Jesus Maria Zaballos alkateak bat egin duela proposamenarekin. Hain juxtu "guk erabilitako argudio berdin berdin berdinak, Irungo kasua, gune berdeak,... erabili dituzte beraiek alegazioa sartzeko. Ez dute ezer aldatu" adierazi dute Txanpi Baztarrikak eta Joxe Goikoetxeak.

Ezker abertzaleko ordezkariak pozik dira Zaballos alkateak hartutako bidearekin, baina harrিতa ere bai urtean ezeko borobila entzun ondoren eta orain jarreraz aldatu dutenean faltan bota dute aipamenen bat behintzat.

Baztarrikak gogoratu zuen, Lasarte-Oria dela Euskal Herrian biztanle dentsitate handienetakoa duen herria eta beharrezko duela aldaketa. •

Bi tona elkartasun Saharako kanpamentuetara



Arg.: Txema Valles

Saharar herriaren lagunek, urtero legez, Urbilen urtarrilaren 29an amaitu zuten bilketa.

Hiru aste egin dituzte Lasarte-Oriako Saharar herriaren lagunek errefuxiatuen kanpamentuetara otsailaren 19an bidaliko den Euskal Karabanarako produktu eta elikagaiak biltzen.

Denbora tarte honetan 2 tona bildu dituzte gure herrian, iaz baino tona bat gutxiago.

"Aurten Usurbilgo taldeak bere aldetik egin du elikagai bilketa eta Urbilen 700 kilo bildu. ditugu iaz baino gutxiago," azaldu digute taldetik.

Hala ere, pozik agertu da Lasarte-Oriako taldea herritarrek krisi egoera honetan egindakoagatik "Gauza han-

dia da, Lasarte-Oria moduko herri batek, nahiz eta krisia egon, 2 tona ematea. Horrek saharar herrian pentsatzen dutela adierazten digu," aipatu digu Hauari sahararrak.

Horregatik, taldeak esker-erak eman nahi dizkie bilketa puntu izan diren ikastetxe eta supermerkatuei, parte hartu duten herritarrei eta Lasarte-Oriako Udalarri lekua eta furgonetak uzteagatik.

Salaketa egin

Era berean, Saharar herriak pairatzen duen egoera salatu nahi du elkarteak.

"Ez da justua aberastasun handiko lurra den Saharara,

arrantza eremuak, etab dituen herriari guk atun eta sardina latak bidali behar izatea," aipatu dute.

"Errefuxiatuen egoera latza da, janari blokeoa dute eta ezin dira haien lurrera bueltatu," adierazi dute.

Honetaz gain, eremu okupatuetan isiltasuna nagusi dela gogoratu dute, "baina atxilotetarako jarraitzen dute eta berri batzuk iristen zaizkigu".

Sahararren esperantza, Hauariren hitzetan "independentzia lortu eta, era horretara, Saharar eta Lasarte-Oriako herrien arteko elkarkidetzak sustatu eta herria garatzeko aukera izatea" da. •

Egunero

Erakusketa

MAITENA URREBIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukeratu gehien gustatzen zaizun argazkia eta parte hartu zozketan. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.

Erakusketa

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta "Oria" izeneko erakusketa ikusgai 14tik aurrera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 11

Bertso-saioa

BERTSO-DESAFIOA jokatu dute LASARTE-ORIAKO bertso-eskolak eta GABIRIKOAK. Herriko bertso-eskolatik Andoni Ota-mendi, Ane Labaka eta Axier Azpiroz arituko dira eta Gabiritik berriz Endika Igartzabal, Gorka Maiz eta Mikel Asurabarrena. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean, EUSKARAZ

Igandea, 13

Zinea

MYSTIKAL haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Astelehena, 14

Urteurrena

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta, poemen irakurketa egingo dute EPAK, literatura tailerrak eta Zentro Zibikoak. Manuel Lekuona kulturetxean, 11:15ean.



Isilpeko maitasunak
osteguneko filman

EL SECRETO DE SUS OJOS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Filmea Argentinan kokatuta dago. Benjamin Espósito epaitegi bateko idazkaria da eta erretiroa hartzeko zorian dago. 30 urte atzera gertatutako hilketa bortitz batekin dago obsesionatuta eta liburu bat idaztea erabaki du. Garai bateko kontuk gogoratzen, burura datorkio emakume bat, isilpean urte guzti hauetan maitatu duen emakumea...

OSTEGUNA 10
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA, 4,20 EURO

retxean, arratsaldeko 18:00etan.

Kontzertua

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta Leticia Vergara eta Esteban Urzelaik zuzentzen duten Orfeo Txikiak kontzertua eskainiko du Danok Kideren VI. Musika topaketen barruan. Brigitarren komentua, 20:00etan.

Asteazkena, 16

Kontzertua

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta, Biyak Bat Zaharren etxeko eta Zentro Zibikoko abesbatzek emanaldia eskainiko dute. Kulturetxean, 18:00etan.

Hitzaldia

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta "Herriaren sorrera" hitzaldia eskainiko da. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Osteguna, 17

Musika

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta, Udal Musika eta Dantza eskolek "Lasarte, oroimenak" izeneko emanaldia eskainiko dute. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean.

Aurkezpena

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta "El mundo laboral de Lasarte-Oria" liburua aurkeztuko du Antxon Aguirre Sorondok. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Asteartea, 15

Aurkezpena

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta "Ausencias" liburua aurkezpen egingo dute. Manuel Lekuona kultu-

Dantza

LASARTE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta, Kukuka taldeak dantza eta antzerki emanaldia eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrik jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Oharrik

Galdutako erlojua

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kirolegiaren inguruan. Jaso duen pertsonari bueltatzea eskertuko nioke, opari bat zen eta. Eskerrik asko. Harremanetarako, Mikel 647 995 050 (mikelgnieto@terra.es)

Elkarretaratzea errausketaren aurka

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak La Caixa eta Banesto bankuen aurkako salaketa kanpaina antolatatu du otsailan zehar, Gipuzkoa Zero Zabor, Ekologistak Martxan

eta Eguzki talde ekologisten parte hartzearekin.

La Caixa eta Banesto bankuak Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoarekin, Zubietako eraustegia egiteko beharrezkoa den dirutzaren parte bat, 60 milioi euro, negoziatzen ari dira eta honen aurrean talde ekologistek elkarretaratzea antolatu dute otsailaren 12an, eguerdiko 12:00etan Lasarte-Oriako Caixa bankuaren aurrean (Nagusia 38).

Alboka Txiki

Alboka Txiki abesbatzak dagoeneko entseguak hasi

ditu. Abesbatza 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago eta ez da beharrezkoa musika jakitea.

Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingo da, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxiatilla, nes karen esku-

muturra eta zilarrezko pultsera bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horieta jaso behar duen pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.



Goizean, Landaberri-Garaikoetxeako haurrak ibili ziren gure herriko kaleetatik barrena eskean. Ederki abestu eta dantzatu zuten.

Santa Agedako koplak eta kantuek herria girotu zuten

Lasarte-Oriako hainbat talde atera ziren ostiralean, Santa Ageda bezperako eskea egitera

Giro onean, ostiralean, Santa Ageda bezperako eskea egin zuten herrian talde desberdinek.

Goiztiarrenak Landaberri-Garaikoetxea ikastolako haurrak izan ziren.

Goizean, kaleko herritarrek eta Landaberri DBHko gaztetxoak alaitu zituzten haien eskearekin.

Baina arratsaldea izan zen talde gehienek aukeratutako momentua.

Batzuk herrian, besteak baserrietan Santa Agedaren

ohorezko doinuak nonahi entzun ahal izan ziren.

Kantu eta koplak ugari

Erketz Dantza taldeko lagunek ohitura legez, entsegu lokaletik atera, erdialdeko kaleetan kantu batzuk egin eta inguruetako baserrietara joan ziren eskea egitera.

Zabaleta auzoko lagunak ere, auzoko plazan hasi eta Hernani alderako baserrietan egon ziren kantuan.

Amalur trikiti eta pandero eskolako haurrak eta haien

gurasoek ere erdialdeko kaleetan barrena ibili ziren koplak.

Azkenik, Xumela korua, Bertso eskola eta Udal Musika eskolako trikitilariak herrian barrena ibili ziren. Koruaren kantu eta bertsolarien koplek herritarrek ederki alaitu zituzten. Talde honek gainera, Ama Brigitaren komentuko mojei bisita egin zien.

Eta kantuen ostean, indarrek berreskuratzeko, gehienek bapto afaldu zuten herri inguruko sagardotegietan. •



Goitik behera, Erketz Dantza taldeko lagunak lokalean hasi ziren koplatan; Amalur eskolako haur eta gurasoak erdialdean ibili ziren eta Zabaletako lagunak auzoan eta baserrietan.



Xumela korua, Musika eskola eta Bertso eskolak osatutako taldearen koplak kantuek herriko hainbat tabernatan entzun ziren eta Otegi sagardotegian afal orduan ere, giro onean, koplatan jarraitu zuten, bertsolarien eskuz.

